BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

945

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 12koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena. Honen bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 22ko Aginduan araututako laguntza-deialdiaren guztizko zenbatekoa handitzeko baimena ematea ebazten da (agindu horren bidez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeentzako eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoentzako ekipamendua erosteko diru-laguntzetarako 2013ko deialdia egin zen).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 22ko Aginduak Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeentzako eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoentzako ekipamendua erosteko diru-laguntzetarako 2013ko deialdia egin zuen (azaroaren 15eko EHAA). Bada, agindu horren 4. artikuluan oinarrituta, eta aurrekontuak aukera ematen duenez, hau,

EBAZTEN DUT:

Baimena ematea deialdiaren guztizko zenbatekoa 776.314 eurora arte handitzeko, betiere, helburu izanik Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetarako eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetarako ekipamendua erostea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau ikastetxeei jakinarazten zaienetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.